



AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2005eko ekainaren 28a.

LEKUA: Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

DEIALDIA: Lehena **HASIERA-ORDUA:** 19:00 **AMAIERA-ORDUA:** 19:45

BERTARATUAK:

Alkatea

Mirari Arruabarrena Elizalde

Zinegotziak

Eneko Olariaga Arruti, M. Jose San Sebastian Aranburu, , Martxiel Genoba Solaberrieta, Andoni Sarasua Oliden, Noemi Ostolaza Arkauz, Eugenio Cotado Iturain, eta Jesus Jose Rodriguez Pousa.

Idazkari-Kontuhartzailea

Jon Carrera Jauregi

BERTARATU EZ DIRENAK:

M^a Elena Legarra Alfaro, herritik kanpo dagoelako.
Ramon Etxeberria Aldaz eta Aurora Azkue Mujika, arrazoi pertsonalengatik.



Aztergai zerrenda

1. Onartzea, egoki bada, 2005eko apirilaren 26ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
2. Onartzea, egoki bada, Udal honen 2004ko ekitaldi ekonomikoari dagokion Aurrekontuaren Kontu Orokorra.
3. Onartzea, egoki bada, 2005ko ekitaldi ekonomikoari dagokion Udal honen Aurrekontu propioaren kredituen aldaketarako 4/2005 zenbakidun espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean.
4. Deuseztatzea, egoki bada, JOSE JOAQUIN GOICOECHEA eta Orioko Udalak 2003ko ekainaren 1ean sinatutako kontratu administratiboa, Orioko Antilla hondartzako 3 zenbakidun eraikinean baimendutako ostalaritza zerbitzuen ustiaketarako.
5. Atxikitzea, egoki bada, EUDEL-k eta IBERDROLA, S.A.-k (merkataritza) sinatutako Lankidetzaren Hitzarmenari, gasaren eta argindarraren hornikuntza kontratuen eraginkortasuna hobetzeko eta tasaren kudeaketa errazteko udal ondare publikoaren erabilera pribatuagatik edo aprobetxamendu bereziagatik.
6. Atxikitzea, egoki bada, EUDEL-k eta NATURCOP REDES, S.A.U.-k sinatutako Lankidetzaren Hitzarmenari, Udalen aldetik tasa kudeatzeko udal ondare publikoaren erabilera pribatuagatik edo aprobetxamendu bereziagatik.
7. Udalbatza hau osatzen duten EAJ-PNV, EA eta PSE-PSOE talde politikoek aurkeztutako mozioa, Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan izaten ari diren manifestazioen aurrean Marokkoar okupazio indarrek erakutsitako errepresio bortitzaren aurrean.
8. Orioko Udaleko Udal Talde Sozialistak aurkeztutako mozioa, lesbiana, gay eta bixesualen eskubideen berdintasun osoaren alde.



ORIOKO UDALA

ORIIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren bilkuraren akta •

2005/06/28

9. Orioko Udaleko Udal Talde Sozialistak aurkeztutako mozioa, Erosketa eta Kontratazio Berdearen alde.
10. Emeterio Iribar Sorazuk aurkeztutako mozioa, kontu guztien gainerik herriko borondatearen alde.
11. Eskariak eta galderak.



Esan-eginak

1. ONARTZEA, EGOKI BADA, 2005EKO APIRILAREN 26KO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [8 baiezko boto]:

ONARTZEA, 2005eko apirilaren 26ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

2. ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL HONEN 2004KO EKITALDI EKONOMIKOARI DAGOKION AURREKONTUAREN KONTU OROKORRA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Honako hauek kontuan hartuz:

1. Indarrean dagoen legearen arabera, jendaurrean jarri dira Orioko Udalaren 2004ko urteko kontuak eta kontabilitatearen egoera orriak, eta horiekin batera, 2004ko Aurrekontuaren likidazioa, bere egiaztagiriekin eta kontuen batzorde bereziaren txostena. Jendaurreko epea hamabost (15) lanegunekoa izan da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, eta interesdunek hamabost egun horiek gehi beste zortzi lanegun izan dituzte ohar edota eragozpenak idatziz aurkezteko.



2. Aipatutako iragarkia 2005eko ekainaren 2ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da (103. zenbakian). Beraz, jendaurreko epea eta ohar edota eragozpenak aurkezteko epea 2005eko ekainaren 3tik ekainaren 20ra artekoa izan da.
3. Epe horretan inork ez du aurkeztu inolako ohar edota eragozpenik.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta informazio publikoaren emaitza ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [8 baiezko boto]:

BEHIN BETIKO ONARTZEA Udal honen 2004ko ekitaldi ekonomikoari dagokion aurrekontuaren kontu orokorra.

3. ONARTZEA, EGOKI BADA, 2005KO EKITALDI EKONOMIKOARI DAGOKION UDAL HONEN KREDITUEN ALDAKETARAKO 4/2005 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2005eko ekainaren 23an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (8 baiezko boto):

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2005eko aurrekontu propioari dagokion 4/2005 zenbakidun Kreditua Aldatzeko Espedienteari. Kreditua aldatzeko espedientearen kopurua 1.419.469,62 eurokoa da. Kreditu Aldaketa honako modalitatean egin da: Kreditu gehigarriak.

2.- Espediente hori JENDAURREAN JARTZEA, ondoko lege-arauetan ezarritakoa betez: Toki Haziendak erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 158. artikulua eta 150. artikulua. Espedientea ondoko arauen arabera jarriko da jendaurrean:



Erakutsita dagoen lekua: Kontuhartzailletza.

Aztertze eta, hala badagokio, erreklamazioak jartzeko epea: hamabost lanegunekoa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitara eman eta ondorengo lanegunetik kontaktzen hasita.

Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak: Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.1 artikuluan aipatutako interesatuek nahiz akordioaren aurka bozkatu zuten udalbatzakideek.

Inpugnatzeko arrazoiak: Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak, eta ordenamendu juridikoaren arau-haustea.

Erreklamazioak aurkezteko: udaletxeko erregistro nagusian, bulego orduetan.

Erreklamazioa Udalbatzarrari zuzenduko zaio.

Adierazitako informazio epea igaro eta inolako erreklamazio edo oharpenik egin ez bada, Kreditua Aldatzeko Espediente hori behin betirako onartuko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

4. DEUSEZTATZEA, EGOKI BADA, JOSE JOAQUIN GOICOECHEA ETA ORIOKO UDALAK 2003KO EKAINAREN 1EAN SINATUTAKO KONTRATU ADMINISTRATIBOA, ORIOKO ANTILLA HONDARTZAKO 3 ZENBAKIDUN ERAIKINEAN BAIMENDUTAKO OSTALARITZA ZERBITZUEN USTIAKETARAKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (8 baiezko boto):

DEUSEZTATZEA Jose Joaquin Goicoechea eta Orioko Udalak 2003ko ekainaren 1ean sinatutako kontratu administratiboa, Orioko Antilla



hondartzako 3 zenbakidun eraikinean baimendutako ostalaritza zerbitzuen ustiaketarako.

5. ATXIKITZEA, EGOKI BADA, EUDEL-K ETA IBERDROLA, S.A.-K (MERKATARITZA) SINATUTAKO LANKIDETZA HITZARMENARI, GASAREN ETA ARGINDARRAREN HORNIKUNTZA KONTRATUEN ERAGINKORTASUNA HOBETZEKO ETA TASAREN KUDEAKETA ERRAZTEKO UDAL ONDARE PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATUAGATIK EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2005eko ekainaren 23an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (8 baiezko boto):

ATXIKITZEA EUDEL-k eta IBERDROLA, S.A.-k (merkataritza) sinatutako Lankidetza Hitzarmenari, gasaren eta argindarraren hornikuntza kontratuen eraginkortasuna hobetzeko eta tasaren kudeaketa errazteko udal ondare publikoaren erabilera pribatuagatik edo aprobetxamendu bereziagatik.

6. ATXIKITZEA, EGOKI BADA, EUDEL-K ETA NATURCOP REDES, S.A.U.-K SINATUTAKO LANKIDETZA HITZARMENARI, UDALEN ALDETIK TASA KUDEATZEKO UDAL ONDARE PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATUAGATIK EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2005eko ekainaren 23an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU**



ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (8 baiezko boto):

ATXIKITZEA EUDEL-k eta NATURCOP REDES, S.A.U.-k sinatutako Lankidetzaz Hitzarmenari, Udalen aldetik tasa kudeatzeko udal ondare publikoaren erabilera pribatuagatik edo aprobetxamendu bereziagatik.

7. UDALBATZA HAU OSATZEN DUTEN EAJ-PNV, EA ETA PSE-PSOE TALDE POLITIKOEN AURKEZTUTAKO MOZIOA, MENDEBALDEKO SAHARAKO LURRALDE OKUPATUETAN IZATEN ARI DIREN MANIFESTAZIOETAN MAROKKOAR OKUPAZIO INDARREK ERAKUTSITAKO ERREPRESIO BORTITZAREN AURREAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Mozioak hitzez hitz honela dio:

ORIOko EAJ-PNV, Eusko Alkartasuna eta PSE-EE Udal Taldeek, ondorengo mozioa aurkezten dute, premiazko izaerarekin.

ARRAZOIEN AZALPENA

Azkenengo egunetan marrokiar indar okupatzaileek sekulako errepresioz erantzuten ari dira Mendebaldeko Saharako lurralde okupatueta hiri desberdinetan egiten ari diren manifestaldien aurrean. Hainbat komunikabidek horrela publikatu dute eta baita Saharai Herriarekiko elkartasun elkarteek ere.

Manifestaldi paketsu hauetan giza eskubideen bortxaketa sistematikoak salatzen dira eta baita ere, Nazioarteko legediak eta NBEko akordioek babesten dituzten Herri bezela dagokizkien eskubideak esijitzen dira .

Estatu espainoleko hainbat tokietan manifestaldiak egiten ari dira eta momentu hauetan guztiz beharrezkoak diren jarrera politikoak hartzen ari dira .

ORIOko Udalak ondorengo mozioa onartzen du, hiritarren oinarrizko giza eskubideen defentsarekiko daukan konpromesua oinarri bezala hartuta.

MOZIOA



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren bilkuraren akta •

2005/06/28

ORIO-ko Udalak:

- 1.- Exijitzen du indar marokoaiek giza eskubideak zehatz-mehatz errespetatu dituzten Mendebaldeko Saharan okupaturiko lurraldean. Halaber, populazio zibila erreprimitzeko jarrera salatzen du.
- 2.- Estatu Espainoleko Gobernuaren bidez NBERi premiatzea Marokoko agintariei exijituz diezaien okupaturiko lurraldeetan eskubideak urratzeari uzteko.
- 3.- Babesten ditu erreferenduma egiteko eta herrien eskubideei buruzko nazioarteko legeria betetzeko Nazio Batuen Erakundearen erabakiak, eta Estatu espainoleko Gobernuaren premiatzen du inplikatu dadin gatazka hori behin betikoz konpontzeko.
- 4.- Bat egiten du Saharako herriarekiko elkartasun taldeekin eta Sahara okupatuan giza eskubideak errespetatu daitezela exijitzen du.
- 5.- Mozio honen edukina Estatu espainoleko Gobernuari, NEBko Idazkari nagusiari, RASDei Madrilan daukan delegaritzari, Madrilan Marokoko duen Enbaxadoreari bidaltzea eta gure Herriko biztanleei jakinaraztea.

_____n 2005eko _____en __an

Izenp. _____

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (8 baiezko boto):

ONARTZEA Udalbatza hau osatzen duten EAJ-PNV, EA eta PSE-PSOE talde politikoek aurkeztutako mozioa, Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan izaten ari diren manifestazioen aurrean Marokoa okupazio indarrek erakutsitako errepresio bortitzaren aurrean.

8. ORIOKO UDALEKO UDAL TALDE SOZIALISTAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, LESBIANA, GAY ETA BISEXUALEN ESKUBIDEEN BERDINTASUN OSOAREN ALDE.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Mozioak hitzez hitz honela dio:

Jesús Rodríguez Pousa, portavoz del Grupo Municipal Socialista del Ayuntamiento de Orío presenta la siguiente moción sobre la plena equiparación de derechos de lesbianas, gays y bisexuales para su debate y aprobación en el Pleno:

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Hace 26 años que nuestro país se sacudió la dictadura y apostó por la democracia y las libertades. Durante todo este tiempo, cientos de miles de ciudadanos y ciudadanas, a causa de una orientación o identidad sexual diferente a la mayoritaria, han tenido que esperar, reivindicar, sufrir y luchar, para verse reconocidos como ciudadanos con los mismos derechos.

Es justo afirmar que nuestra sociedad, los vecinos y vecinas de nuestro municipio, están mayoritariamente a favor de la plena equiparación de derechos para gays, lesbianas, transexuales y bisexuales.

El papel de las instituciones europeas por reconocer la plena igualdad legal y social para gays, lesbianas y transexuales, se ha traducido en diferentes tratados y resoluciones que nuestro país ha firmado y tiene que desarrollar: el Tratado de Ámsterdam en su artículo 13 y en la Carta de Derechos Fundamentales de la Unión Europea en su artículo 21, la Resolución A-0028/94 del 8 de febrero de 1994 del Parlamento Europeo sobre “La igualdad de derechos de los homosexuales y las lesbianas en la Comunidad Europea”, la Resolución A4-0478/98 también del Parlamento Europeo sobre “El respeto de los derechos humanos en la Unión Europea” y la resolución A316/89 sobre “La Discriminación de los Transexuales”.

El posicionamiento favorable del Gobierno a iniciar las reformas legislativas necesarias: matrimonio entre personas del mismo sexo, ley de parejas de hecho, ley de identidad sexual, asunción en el catálogo de prestaciones sanitarias de los procesos transexualizadores, contribuirá definitivamente a la plena equiparación de derechos de estos ciudadanos y ciudadanas.

Ante la próxima celebración del Día del Orgullo gay, lésbico, transexual y bisexual, nuestro Ayuntamiento quiere comprometerse y contribuir a que nuestros vecinos y vecinas gays, lesbianas, transexuales y bisexuales logren la plena igualdad de derechos, por ello rubricamos esta declaración y estos compromisos:

Nuestro Ayuntamiento se compromete a impulsar medidas para la plena equiparación social de gays, lesbianas, transexuales y bisexuales: acciones de sensibilización y lucha contra la homofobia y la transfobia; medidas educativas; medidas de integración; servicios de asesoramiento y orientación para gays, lesbianas, transexuales y bisexuales.



Nuestro Ayuntamiento se une a la iniciativa emprendida por diferentes colectivos internacionales y diferentes países, para declarar el día 17 de mayo, como día mundial contra la homofobia y transfobia.

Enviar copia de este acuerdo a la Federación Estatal de Lesbianas, Gays y Transexuales (FELGT) y a las organizaciones GLTB de nuestro entorno.

Por todo ello rubricamos esta Declaración como muestra de nuestro compromiso con la libertad, la democracia, la solidaridad, la convivencia, la diversidad y la modernidad. Con esta moción queremos apoyar la plena equiparación de derechos para lesbianas, gays, transexuales y bisexuales.

Orio, a 22 de junio de 2005

Jesús Rodríguez Pousa

Grupo Municipal Socialista,

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (8 baiezko boto):

ONARTZEA Orioko Udaleko Udal Talde Sozialistak aurkeztutako mozioa, lesbiana, gay eta bisexualen eskubideen berdintasun osoaren alde.

9. ORIOKO UDALEKO UDAL TALDE SOZIALISTAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, EROSKETA ETA KONTRATAZIO BERDEAREN ALDE.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Mozioak hitzez hitz honela dio.

Jesús Rodríguez Pousa, portavoz del Grupo Municipal Socialista del Ayuntamiento de Orio presenta la siguiente moción para su debate y aprobación en Pleno:

MOCIÓN sobre la Compra y Contratación Verde



El 5 de Junio se ha celebrado el Día Internacional del Medio Ambiente, fecha establecida por las Naciones Unidas para recordar la necesidad de una mayor concienciación en el compromiso ambiental de los ciudadanos, empresas y agentes sociales.

Asimismo, es una buena fecha para recordar la necesidad de una continua y permanente atención y acción política en un tema tan sensible que afecta al presente y al futuro de nuestras generaciones.

Los ayuntamientos, la administración más próxima a los ciudadanos, deben jugar un papel básico en la adopción de buenas prácticas que además de contribuir directamente a la preservación del medio ambiente, supongan un ejemplo de buen gobierno.

El tema elegido este año para celebrar este día es el de **CIUDADES VERDES** motivo por el que planteamos una iniciativa dirigida a la adquisición de servicios y productos ecológicamente responsables, realizando una contribución a la competitividad y al desarrollo sostenible.

Compra verde significa integrar la componente ambiental en la toma de decisiones que afectan a compra de bienes y contratación de servicios. La compra verde es un potente instrumento para mejorar las condiciones medioambientales e incluso para reducir el gasto público y en el caso de las Administraciones supondrá además un factor de arrastre para otros sectores y para la ciudadanía, e incluso una notable contribución a la reducción de los diferentes problemas ambientales.

Se estima las compras públicas europeas representan un 16% del PIB, y sólo en España las previsiones indican que alcanzará un 28% este año. En vista de estos datos, el impacto de adoptar criterios “verdes” en el suministro, por ejemplo, de madera, ofimática, energía o alimentación, podría ser crucial para la sostenibilidad medioambiental de la U.E.

Se estima según un reciente informe sobre “compra verde” de la Comisión Europea que si todas las Administraciones de la U.E. apostaran por las energías renovables, se recortarían las emisiones de dióxido de carbono en 60 millones de toneladas (un 18% del compromiso de Kioto), y se restarían otras 830.000 si optaran por ordenadores más eficientes. Igualmente, si todas las Administraciones instalaran sistemas de ahorro de agua en los servicios de sus edificios, el consumo se reduciría en 200 millones de toneladas, el equivalente al 0,6% del consumo doméstico total en la Unión.

En tal situación, y bajo el prisma de pensar globalmente y actuar localmente, se insta al Pleno Municipal a adquirir los siguientes compromisos:

ACUERDOS

1. El Ayuntamiento se compromete a trabajar en el desarrollo paulatino de una **política de compras verdes** para la adquisición en sus contratos de suministro de productos con etiquetado ecológico o de aquellos productos que en su proceso de producción no contengan sustancias peligrosas o tengan un menor impacto sobre el medio ambiente como el empleo de productos reutilizados o reciclados, el empleo de productos que generen menos residuos y sean más eficientes energéticamente, etc.,

2. El Ayuntamiento se compromete a utilizar **criterios ambientales en los pliegos de las cláusulas administrativas** que se aprueben para la adjudicación de los concursos de consultoría, asistencia, obras y servicios que deberán integrar los aspectos ambientales en su realización (reducción de las emisiones de gases efecto invernadero, reducción en la generación de residuos, utilización de materiales reciclados, etc.), así como para las empresas que optan a ofrecer servicios a



las que se las valorará entre otros méritos por estar en posesión de sistemas de gestión medioambiental (EMAS, ISO-14000).

3. El Ayuntamiento se compromete en las obras de rehabilitación o reforma y en el mantenimiento de las instalaciones, equipos y vehículos, a **incorporar las tecnologías más eficientes desde el punto de vista energético** y, en general, al mantenimiento de los mismos desde un punto de vista ambiental (utilización de energías renovables, gestión de residuos, dispositivos ahorradores de agua, eficiencia energética).

4. El Ayuntamiento participará en la **formación y sensibilización de los funcionarios y personal**, para implantar hábitos y **buenas prácticas ambientales** en el funcionamiento de la administración.

5. El Ayuntamiento se compromete al desarrollo de **campañas de educación** para aumentar la **sensibilización hacia la “compra verde”** con el objetivo de aumentar la sostenibilidad en general de las compras de los ciudadanos.

6. El Ayuntamiento se compromete a potenciar cuantos **acuerdos voluntarios** sean necesarios con los agentes económicos para fomentar la **adquisición de productos ecoeficientes** para los funcionarios y ciudadanos.

Orio, a 22 de junio de 2005

Fdo.: Jesús Rodríguez Pousa

Grupo Municipal Socialista,

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (8 baiezko boto):

ONARTZEA Orioko Udaleko Udal Talde Sozialistak aurkeztutako mozioa, Erosketa eta Kontratazio Berdearen alde.

10. EMETERIO IRIBAR SORAZUK AURKEZTUTAKO MOZIOA, KONTU GUZTIEN GAINETIK HERRIKO BORONDATEAREN ALDE.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Mozioak hitzez hitz honela dio.

HERRIAREN BORONDATEA GAUZA GUZTIEN GAINETIK

Bakea, demokrazia, konponbidea,... guztion ahotan dabilen egun hauetan, herri honen azken urteetan izan diren egunik beltzenetariko baten bigarren urteurrena betetzear gaude. 2003ko



maiatzaren 25ean, espainiar estatuak herri honen eskubide zibil eta politikoen aurka, beste urrats bat gehiago eman zuen, milaka herritarren borondatea alboratuz. Bi urte hauetan, espainiar eta frantziar estatuak, bere etorkizuna libreki erabakitzeko ahalmena besterik eskatzen duen herri zahar hau, modu desberdinetara ukatzen jarraitu dute.

Baina urte hauek, hainbat gauza oso agerian utzi dituzte: Ezkertiar eta abertzaleok urteetan aldarrikatu dugun bezala, herri honen eskubideen aitorenpenetik eta euskal herritarren borondatearen errespetutik soilik konponduko da mendeetan zehar luzatzen ari den gatazka.

Bide horretan, eta askotan ikusi den bezala, herritik sortu eta herrian errotutako eskubideen aldarrikapen eta proiektu politikoak, ezin dira dekretu eta lege atzerritarren bidez, egun batetik bestera desagertarazi. Horretan aritzeak eta egoera horretatik etekina ateratzen saiatzeak, herritarren artean ezinegona eta haserrearekin lotuak besterik ez du egingo.

Argi geratu da gainera, Euskal Herria eta estatu frantziar eta espainiarraren arteko gatazkan, azken hauek eskubideak ukatzeko tresna berriak erabili dituzten guztietan, herri jakituriak, egoerari aurre hartu eta bitarteko berriak topatu ezan dituela, zilegitasun osoz aurrera egiten jarraitzeko. Horren lekuko da, Udal zerrendak legez kanpo utzi zituztela bi urte bete diren honetan, ehunka udalerritan Herri Plataformak lan politikoa egin eta alternatibak aurkezten inoiz baino tinkoago ari izana.

Bitartean ia 100 hautetsik, beraiei ez zegokien karguak hartu ez, edo utzi izana, ba da pausu bat. Garrantzitsua oso. Lehen pausua, herri zilegitasunik ez duenak, ez dagokion kargu instituzionalari uko egitea delako. Hemendik, oraindik lapurtutako karguetan jarraitzen duten 300 hautetsiri DIMITITZEKO dei ozen bat luzatu nahi diegu. Madrileko faxistek diseinaturiko Apartheid ildoaren zutabe direlako. Kargua lapurtzen duten hautetsirik gabe, Apartheid-ak etorkizunik ez duelako.

Baina bigarren pausu bat emanaz, herri honetan ideiak bahitzeko estatuak erabilitako tresna, bere aurka bilakatzeko aukera ba da. LOREG-aren 182.2 artikulua bidez, herri zilegitasunez dagokionari kargua itzultzea posible da. Borondate politikoa behar da bakarrik. Gaur arte gauzatzen ez den borondatea hain zuzen ere.

Euskal Herriak, bi estatuarekin duen gatazkaren konponbidearen aldeko adierazpenak nagusi diren egun hauetan, berau, herriari hitza eman eta errespetatzen etorriko dela ere, guztion ahotan da. Baiona asmo hauek guztiak gauzatzeko bidean, ausardia politikoa da ezinbesteko osagaia. Eta honek, Udal eta Batzar Nagusietako egoera antidemokratikoari aurre egin beharrezkin zerikusi zuzena du.

Irakurketa honek ba du salaketa izaera, milaka herritar eta hautetsiren hitzak bahituta jarraitzen duelako. Baina ba du eskaintza izaera ere. Egoera honi konponbidea emateko gure prestutasuna aldarrikatu nahi dugulako.

Hau guztia kontutan izanik eta egoera honen aurrean, Talai Herri Plataformak, honako puntu hauek aurkezten ditu Osoko Udal Batzarrean, bertan eztabaidatu eta onartuak izan daitezten:

1.- Espainiar Alderdien Legearen aplikazioak sorturiko eskubide zibil eta politikoen urraketa egoera hau ahalik eta azkarren gaitzetearen beharra bere egiten du Udal honek.



- 2.- Udal honek, 2003ko Udal eta Foru hauteskundeetan, milaka herritarrek bozka bidez emaniko hitza errespetatzearen premia aldarrikatzen du. Norabide horretan urrats sendo eta ausartak ematea, herri honen eta bi Estatuaren arteko gatazkaren konponbidean ezinbesteko pausua dela uste du.
- 3.- Udal honek, herri borondatearen arabera kargurik ez dagokien hautetsiei, LOREG-aren 182.2 artikulua bidez, gure herritarrek duela bi urte adierazi zutenaren arabera Udala osatu dadin.
- 4.- Udal hau, ahalik eta azkarren guztiok desio dugun egoera horretara iristeko beharrezkoak diren pausu guztiak emateko prest agertzen da.
- 5.- Erabaki honen berri herritarrei zabaltzeko konpromezua hartzen du Udal honek.

Euskal Herrian 2005eko maiatzean

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (8 ezezko boto):

EZ ONARTZEA Emeterio Iribar Sorazuk aurkeztutako mozioa, kontu guztien gaineratik herriko borondatearen alde.

Bestalde, ilegalizazioaren ondorioz ordezkariarik gabe geratu diren plataformen jokabidearen aurrean EAJ-PNV/EA talde politikoek honako mozio alternatiboa aurkezten dute:

ILEGALIZAZIOAREN ONDORIOZ ORDEZKARITZARIK GABE GERATU DIREN PLATAFORMEN JAKABIDEAREN AURREAN EAJ-PNV/EA-ren MOZIO ALTERNATIBOA

Bi urte bete dira Udal eta Foru Hauteskundeak ospatu zirenetik, eta guztiok gogoan daukagun bezala, Udal eta Foru Hauteskunde horietan, Madrilgo Legebiltzarrak onartutako Alderdien Legearen aplikazioaren ondorioz, zenbait hautagai zerrendei ezinezko suertatu zitzaizen aurkeztea. Egoera horren aurrean behin eta berriro adierazi izan dugu, bai Alderdi gisa, eta baita ordezkariak daukagun Erakundeetan ere Alderdiaren Legearen gure aurkako jarrera, hala nola, aplikazioak sorrarazi dituen ondorioen gaitzespena ere.

Azken bi urteotan, Alderdien Legearen aplikazioaren ondorioz, hainbat izan dira sortutako egoera ezezkorrak. Batetik, herritar askok ezin izan dute euren ordezkariak Erakundeetan isladaturik ikusi, eta bestetik, Udaletxeetan duden hainbat zinegotzik, legez kanpo geratu diren plataforma ezberdinek eragindako presio zuzena jasan behar izan dute, egoeraren errudun izango balira bezala.

Guzti honen aurrean, eta azkenaldien burutu diren ekumen, eskari eta adierazpenen aurrean, zenbait puntu argitzea komenigarria dela deritzogu, EAJ-PNV/EAk duen jarrera adieraziaz:



1.- Alderdien Legearen onarpena, hala nola Alderdi nahiz Plataforma ezberdinen ilegalizazio prozesuak PP eta PSOEek hitzartutako “Pacto por las libertades” delakoaren ondorio zuzena dira, ez EAJ-PNV/EAren jokabidearen ondorio. Are gehiago, EAJ-PNV/EAK behin eta berriro bere aurkako jarrera adierazteaz gain, eskuetan izan dituen tresnak ere erabiltzen saiatu da Alderdien Legearen aurka jotzeko, nahiz eta bide horretan ez duen Sozialista Abertzaleak taldearen laguntzarik jaso, kasuan, Eusko Legebiltzarrean Legearen aurkako helegitea aurkeztu zedila onartu nahi izan zenean.

2.- Ez da inolaz ere onargarria beste batzuek sortutako egoeraren ardura EAJ-PNV/Eari egotzi nahi izatea, eta are gutxiago izen abizenak dituzten zinegotziei egotzi nahi izatea. Une honetan, arazo honi konponbidea emateko giltza Madrilgo Gobernuak dauka. EAJ-PNV/EAK argi eta barbi zuzendu dio dagokionari egoera konpontzeko eskaera.

3.- Orain, Estatuko Legearen aurkako borrokalari gisa azaltzen direnek, legedi horren beraren zirrikitu bat erabiltzea eskatzen digute besteoi, LOREGaren 182. artikulua alegia. Guztion ezaguna da artikulua hori onartzerakoan Madrilgo Gorteek zeukaten asmoa zein zen, PPK eta PSOEek udal ezberdinetan zituzten arazo larriei konponbidea bilatzea hain zuzen ere. Eta orain guri eskatzen horren erabilera egitea, egongo ez bagenu ilegalizazioaren ardura geurea izango balitz bezala. Gauzak ez dira horrela, eta berriro diogu, arazoari konponbidea topatu nahi bazaio, guztiok dakigu giltza zeinen eskuetan dagoen, edo norbaitek sinisten al du 182. artikulua bidetik, Madrilgo Gobernuak konturatu gabe eta bere iritzia kontra ehundaka kargu publiko izendatu daitezkeela?

4.- Bitartean, dinamika maltzur baten aurrean topatzen gara, zoritxarrez gure artean aspaldikoa den dinamika: Batzuen eskubideak aldarrikatu besteenak zanpatuz. Bi urte hauetan herriz herri egoera larri ugari sortu dira, zinegotzi mehatxatuak, irainduak eta erasotuak. Konponbideak bilatzeko saioa egin nahi duen edonork, giza errespetua izan behar du oinarri.

5.- Ez dugu onartzen gai honen inguruan egin nahi den pertsonalizazioa. EAJ-PNV/EAK dituen zinegotziak ez dira bi klasetakoak (batzuek lapurrak eta beste batzuek zilegizkoak). Denak berdinak dira. Udaletxeetan ordezkari arazoa dagoela badakigu, baina daukagun arazoa guzti guztiona da eta guztion artean saiatu beharko ginatke konponbideak bilatzen.

6.- Balore eta printzipio demokratikoen garapenean eta aplikazioan sakontzeagatik apostu egiten dugu eta honekin batera, indarkeriaren estrategian mugitzen direnen papera eta soilik bide errepresiboak zuzentzen dakiten hoierna salatzen dugu.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, Arruabarrena (EAJ-PNV) Olariaga (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Sarasua (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), San Sebastian (EAJ-PNV), eta Cotado (EA) zinegotzien aldeko botoekin, guztira **BAIEZKO ZAZPI BOTO**, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziaren abstentzio botoarekin, guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU:**

ONARTZEA EAJ-PNV/EA Udal Taldeak aurkeztutako mozio alternatiboa.



11. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez zen izan.

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA

IDAZKARIA